

ELEIZ AMA

1

“Eleizea dan petrala”
eta beste esan-ala,
diranak eta ez diran asko
dabil bala-bala
Asko izan arren ala,
ni neu ez naz ain zitala;
argi ta garbi dinotsut auxe:
neure Ama dala.

3

Ama akatsez beterik,
ez dago dana kentzerik;
akats ta guzti maite-maite dot,
ez dago oberik.
Bertan jaio nintzanetik
nauka altzoan gorderik;
AMA dalako ain maite dot nik,
eta ez besterik.

5

Jesusen Gorputza danez,
dinot biotz ta ezpane:z
Espirituak barrizatzen dau
arnasa emanaz.
Beragandik jan-edanez,
eta geure neke-lanez;
danon artean osotzen dogu
atalak garanez.

7

Au da autortu bearra:
Jesus da santu bakarra;
besteok beti dogu zer kendu
geugan dogun txarra.
Itzartu zaitez baldarra,
kendu begiko malkarra;
jarri ekintzan berbetan dogun
adore, indarra.

2

Santu guztien jarrera:
lenengo ondu norbera;
beste guztia onduko dogu
orren arabera.
Kritika dago sobera,
garraztasunez gainera,
zatoz Eleiza ohea lantzen,
badogu aukera.

4

Santu eta pekatari,
bietatik dau ugari;
ziurtatzeko begira jarri
geure buruari..
Zenbat alper dan nabari,
etsai ta biraolari!
Ogei gizaldiz irauten badau,
auxe da mirari!

6

Gauza ona da kritika,
baldin badakar pratika;
Geure Etxea ez da konpontzen
berbaz ta arrika.
Etenbako ikamika,
zelango erretolika!
Geuk nai genduken eleiz-moldea
geuregan aplikia.

8

Jaunaren borondatea:
ni Eleizan jaiotea;
eskerrik asko biotzez, Jauna,
auxe da suertea!
Eleizan dot aterpea,
or nire senitartea;
seme leial lez, zainduko zaitut
Eleiza maitea.

A. Martzel